



## JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA I. XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua.

Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 19.1 b) artikuluan eta zerga hau arautzen duen uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga exigituko du Aramaio Udalak, ordenantza honen arabera.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga zerga erreala da, enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritze hutsagatik karga bat ezartzen duena, ordenantza honetan ezarritakoari jarraituz.

### 2. artikulua

Ordenantza Aramaio udalerrri osoan ezarriko da.

## II. ZERGA GAIA

### 3. artikulua

Aramaion enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzeak osatuko du zerga gaia, jarduera horiek lokal zehatz batean egin edo ez egin, eta zergaren tarifetan zehaztuta egon edo ez egon.

Zerga honen ondorioetarako, honakoak izango dira enpresa jarduera: abeltzaintza jarduerak, norbere kontukoak direnean, meatzaritza, industria, merkataritza eta zerbitzu-jarduerak. Ez dira, berez, holakotzat hartzen nekazaritza jarduerak, besteren kontuko abeltzaintza-jarduerak, basogintza eta arrantza jarduerak, hauetariko bat ere Zergarengatik egitate ezargarria ez delarik.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, norbere kontuko abeltzaintza honako kasu hauetakoren batean aurkitzen den abelburu multzoari erizten zaio:

- Ganaduaren jabeak nekazaritza edo basogintza moduan ustiatzen ez dituen lurretan batipat bazkatzen edo elikatzen dena.
- Landa-finketatik kanpoko tegietan hazitakoa.
- Larre-aldatzezkoa edo mugapasazkoa.
- Bera hazten deneko finkan ekoitziak ez diren pentsuekin batipat elikatzen dena

### 4. artikulua.

1.- Jarduera batek enpresa, lanbide edo arte izaera izango du produkzio bitartekoak eta giza baliabideak

## ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONOMICAS I. DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1.

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en el artículo 19.1 b) de la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Alava y en la Norma Foral 43/1989 de 19 de julio, reguladora de este tributo, exige el Impuesto sobre actividades económicas con arreglo a la presente Ordenanza.

El Impuesto sobre Actividades Económicas es un tributo directo de carácter real que grava el mero ejercicio de actividades empresariales, profesionales o artísticas, de acuerdo con lo dispuesto en esta norma.

### Artículo 2

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal de Aramaio.

## II. HECHO IMPONIBLE

### Artículo 3

Constituye el hecho imponible del Impuesto el mero ejercicio en el municipio de Aramaio de actividades empresariales, profesionales o artísticas, se ejerzan o no en local determinado y se hallen o no especificadas en las Tarifas del impuesto.

Se consideran, a los efectos de este impuesto, actividades empresariales las ganaderas, cuando tengan carácter independiente, las mineras, industriales, comerciales y de servicios. No tienen, por consiguiente, tal consideración las actividades agrícolas, las ganaderas dependientes, las forestales y las pesqueras, no constituyendo hecho imponible por el impuesto ninguna de ellas.

A efectos de lo previsto en el párrafo anterior, tendrá la consideración de ganadería independiente, el conjunto de cabezas de ganado que se encuentre comprendido en alguno de los casos siguientes:

- Que pade o se alimente fundamentalmente en tierras que no sean explotadas agrícola o forestalmente por el dueño del ganado.
- El estabulado fuera de las fincas rústicas.
- El trashumante o trasterminante.
- Aquel que se alimente fundamentalmente con piensos no producidos en la finca en que se críe.

### Artículo 4.

1.- Se considera que una actividad se ejerce con carácter empresarial, profesional o artístico, cuando



(edo bietakoren bat) bere kabuz antolatzen dituenen, ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan parte hartzeko asmoz.

2.- Zergapetutako jardueren edukia zergaren Tarifetan zehaztuko da.

5. artikulua

Zergapetutako jarduerak egiten direla frogatzeko zuzenbidean onargarria den edozein bitarteko erabiliko da, eta, bereziki, Merkataritza Kodearen 3. artikuluan jasotakoak.

6. artikulua

Ez da zerga gaia izango honako jarduera hauek egitea:

1.- Enpresen aktibo finkokoak izan eta, besterenganatu baino bi urte lehenagotik, ibilgetu horretan behar bezala inbentariaturik egon diren ondasunak besterenganatzea, eta saltzailearen berezko eta berebiziko erabilerazko ondasunen salmenta, baldin eta denboraldi berberetan erabili bazituen.

2.- Lan pertsonalen edo lanbide-zerbitzuen ordain jasotako ekoizkinen salmenta.

3.- Establezimendua apaindu edo edertze xede hutsezko salgaiak erakustea. Bezeroentzako opari moduko salgaiak erakustea, aldiz, zergari loturik egongo da.

4.- Gutxikako salmenta denean, egiketa bakar bat edo bakarreko eragiketa egitea.

### III.- SALBUESPENAK

7. artikulua.

1.- Honakoak salbuetsiko dira zergatik:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta udal erakundeak, eta estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Zerga honen lehenengo bi zergaldietan jarduera bati ekiten dioten subjektu pasiboak.

Honen ondorioetarako, ondoko kasuetan jarduera ez dela hasi pentsatuko da:

suponga la ordenación, por cuenta propia, de medios de producción y de recursos humanos o de uno de ambos, con la finalidad de intervenir en la producción o distribución de bienes o servicios.

2.- El contenido de las actividades gravadas se definirá en las Tarifas del impuesto.

Artículo 5

El ejercicio de las actividades gravadas se probará por cualquier medio admisible en derecho y, en particular, por los contemplados en el artículo 3 del Código de Comercio.

Artículo 6

No constituye hecho imponible en este impuesto el ejercicio de las siguientes actividades:

1.- La enajenación de bienes integrados en el activo fijo de las Empresas que hubieran figurado debidamente inventariados como tal inmovilizado con más de dos años de antelación a la fecha de transmitirse, y la venta de bienes de uso particular y privado del vendedor siempre que los hubiese utilizado durante igual período de tiempo.

2.- La venta de los productos que se reciben en pago de trabajos personales o servicios profesionales.

3.- La exposición de artículos con el fin exclusivo de decoración o adorno del establecimiento. Por el contrario, estará sujeta al impuesto la exposición de artículos para regalo a los clientes.

4.- Cuando se trate de venta al por menor, la realización de un solo acto y operación aislada.

### III. EXENCIONES

Artículo 7.

1.- Están exentos del impuesto:

a) El Estado, la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Alava y las Entidades Municipales, así como los Organismos autónomos del Estado y las entidades de derecho público de carácter análogo de las citadas Administraciones Territoriales.

b) Los sujetos pasivos que inicien el ejercicio de su actividad, durante los dos primeros períodos impositivos de este Impuesto en que se desarrolle la misma.

A estos efectos, no se considerará que se ha producido el inicio del ejercicio de una actividad en los siguientes casos:



- 1) Jarduera lehen beste titulartasun batekin egin bada; halakotzat hartuko dira batetik, zatikatzeak eta jarduera arloak eranstea.
- 2) Subjektu pasiboa Merkataritzako Kodeko 42. artikuluekin bat etorritik eratuakoz sozietate talde bateko kidea bada; salbuespena: jarduera berria izatea, aurretik taldeko ezein enpresak egin ez duena.
- 3) Erakundearen % 25 baino gehiago jarduera berean aritu diren enpresen esku bada.

c) Eragiketetan 1.000.000 euro baino gutxiagoko bolumena duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei dagokienez, establezimendu iraunkor bidez aritzen direnentzat baino ez da izango salbuespena, betiere eragiketetan 1.000.000 eurotik beherako bolumena badute.

Edonola ere, salbuespen hori aplikatzeko, ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez izatea, zuzenean edo zeharka, letra honetan jasotzen den eragiketa-bolumenaren baldintza betetzen ez duten enpresen ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetzarik, non eta ez diren arrisku kapitaleko sozietate edo funtsak, hain zuzen ere Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 77. artikuluetan zehazten direnetakoak, baldin eta partaidetza sozietateen xedea betetzearen ondorio bada.

Letra honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1. Eragiketa bolumena sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 5. Artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoaren arabera kalkulatu da (37/2013 Foru Arau, abenduaren 13koa, sozietateen gaineko zergari buruzkoa).
2. Eragiketa bolumena, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren peko subjektu pasiboaren kasuan edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren peko zergadunen kasuan, izango da haiei dagozkien aitopenen aurkezteko epea zerga betebeharra sortu aurreko urtean amaiturik duten zergen zergaldikoa.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako sozietate zibilen eta erakundearen eragiketen bolumena izango da zerga honen ziozko zorra sortu den urtearen azken aurreko urtekoa.

Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumena urtebeteraino

- 1) Cuando la misma se haya desarrollado anteriormente bajo otra titularidad, circunstancia que se entenderá que concurre, entre otros supuestos, en los casos de fusión, escisión o aportación de ramas de actividad.
- 2) Cuando el sujeto pasivo forme parte de un grupo de sociedades conforme al artículo 42 del Código de Comercio, salvo que se trate de una actividad nueva no desarrollada con anterioridad por ninguna de las empresas integrantes del grupo.
- 3) Cuando se halle participada en más de un 25 por 100 por empresas que hayan desarrollado la misma actividad.

c) Los sujetos pasivos que tengan un volumen de operaciones inferior a 1.000.000 de euros.

En cuanto a los contribuyentes por el impuesto sobre la renta de no residentes, la exención sólo alcanzará a los que operen mediante establecimiento permanente, siempre que tengan un volumen de operaciones inferior a 1.000.000 de euros.

En todo caso, será requisito para la aplicación de esta exención que los sujetos pasivos no se hallen participados, directa o indirectamente, en más de un 25 por ciento por empresas que no reúnan el requisito de volumen de operaciones previsto en esta letra, excepto que se trate de sociedades o fondos de capital riesgo a que se refiere el artículo 77 de la Norma Foral 37/2013, de 13 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, cuando la participación sea consecuencia del cumplimiento del objeto social de estas últimas.

A efectos de la aplicación de la exención prevista en esta letra, se tendrán en cuenta las siguientes reglas:

1. El volumen de operaciones se determinará de acuerdo con lo previsto en el apartado 1 del artículo 5 de la Norma Foral 37/2013, de 13 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades.
2. El volumen de operaciones será, en el caso de los sujetos pasivos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades o de los contribuyentes por el Impuesto sobre la renta de no residentes, el del período impositivo cuyo plazo de presentación de declaraciones por dichos tributos hubiese finalizado el año anterior al del devengo de este Impuesto.

En el caso de las sociedades civiles y las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, el volumen de operaciones será el que corresponda al penúltimo año anterior al de devengo de este Impuesto.

Si dicho período impositivo hubiera tenido una



igoko da.

3. Subjektu pasiboaren eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, hark egindako jarduera ekonomikoen multzoa hartuko da kontuan.

Erakundea, Merkataritzako Kodearen 42. artikulua arabera, sozietate talde bateko kidea bada, lehenago aipatu magnitudeak talde horretako erakundeen multzoari egokituko zaizkio.

4. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, Espainian dauden establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakioken eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

d) Gizarte Segurantzaren, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten erakundeak, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik eratuak.

e) Ikerketa-erakunde publikoak; irakaskuntza-establezimenduak (maila guztietan), osorik Estatuaren, Autonomia Erkidegoen, Arabako Foru Aldundiaren eta Toki Entitateen funtsez ordaintzen badira, edo ongintzazkotzat edo erabilgarritasun publikokotzat jotako Fundazioen kontura; irabazteko xederik ez duten irakaskuntza-establezimenduak (maila guztietan), hezkuntza itunaren erregimen pean badaude, nahiz eta ikasleei liburuak edo idazmahaiako artikulua eskuratu edo pensio erdiko edo barnetegiko zerbitzuak eman edo, salbuespen gisa, establezimenduan bertan saldu irakaskuntza horretara zuzendutako tailerretako produktuak, baldin eta salmentaren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea) eskusiboki lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua mantentzeko bideratzen bada.

f) Ezindu fisiko, psikiko eta sensorialen elkarte eta fundazioek, irabazteko asmorik gabeek, ezinduak irakatsi, hezi, birgaitu eta zaintzeko burutzen dituzten pedagogia, zientzia, asistentzia eta enplegu jarduerak direla eta, nahiz eta horretara egokitutako tailerretako produktuak saldu, baldin eta salmenta horren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea) eskusiboki lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua mantentzeko bideratzen bada.

g) Gurutze Gorriaren eta arautegian zehaztuko diren antzeko erakundeen ondasunak.

h) Salbuespena aplikatu dakiekeen subjektu pasiboek, nazioarteko itunei edo hitzarmenei jarraikiz.

2. Aurreko paragrafoa a), d), g) eta h) idatz-zatietan

duración inferior al año natural, el volumen de operaciones se elevará al año.

3. Para el cálculo del volumen de operaciones del sujeto pasivo se tendrá en cuenta el conjunto de las actividades económicas ejercidas por el mismo.

Cuando la entidad forme parte de un grupo de sociedades conforme al artículo 42 del código de comercio, las magnitudes anteriormente indicadas se referirán al conjunto de entidades pertenecientes a dicho grupo.

4. En el supuesto de los contribuyentes por el Impuesto sobre la renta de no residentes, se atenderá al volumen de operaciones imputable al conjunto de los establecimientos permanentes situados en territorio español.

d) Las Entidades gestoras de la Seguridad Social y de Mutualidades y Montepíos constituidos conforme a lo previsto en la legislación vigente.

e) Los organismos públicos de investigación, los establecimientos de enseñanza en todos sus grados costeados íntegramente con fondos del Estado, de las Comunidades Autónomas, de la Diputación Foral de Alava o de las Entidades Locales, o por Fundaciones declaradas benéficas o de utilidad pública, y los establecimientos de enseñanza en todos sus grados que, careciendo de ánimo de lucro, estuvieren en régimen de concierto educativo, incluso si facilitasen a sus alumnos libros o artículos de escritorio o les prestasen los servicios de media pensión o internado y aunque por excepción vendan en el mismo establecimiento los productos de los talleres dedicados a dicha enseñanza, siempre que el importe de dicha venta, sin utilidad para ningún particular o tercera persona, se destine, exclusivamente, a la adquisición de materias primas o al sostenimiento del establecimiento.

f) Las Asociaciones y Fundaciones de disminuidos físicos, psíquicos y sensoriales, sin ánimo de lucro, por las actividades de carácter pedagógico, científico, asistenciales y de empleo que para la enseñanza, educación, rehabilitación y tutela de minusválidos realicen, aunque vendan los productos de los talleres dedicados a dichos fines, siempre que el importe de dicha venta, sin utilidad para ningún particular o tercera persona, se destine exclusivamente a la adquisición de materias primas o al sostenimiento del establecimiento.

g) La Cruz Roja y otras Entidades asimilables que reglamentariamente se determinen.

h) Los sujetos pasivos a los que les sea de aplicación la exención en virtud de tratados o convenios internacionales.

2. Los sujetos pasivos a que se refieren las letras a),



zehaztutako subjektu pasiboek ez dute zergaren erroldako alta aitortpena aurkezteko beharrik.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak zehaztuko du aurreko 1. paragrafoko c) idatz-zatiko zehaztutako salbuespena aplikatzen den zein kasutan eskatuko den Arabako Foru Aldundiari zuzendutako komunikazio bat; komunikazio horretan, letra horretan salbuespena aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla ziurtatu beharko da.

Ondorio horietarako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko ditu komunikazio horren edukia, epea eta aurkezpen modua, baita bide telematikoz aurkeztu beharko diren kasuak ere.

4. Aurreko 1. paragrafoko c) idatz-zatian zehaztutako salbuespenari eragin diezaioketen aldakuntzez ari garela, zerga-ordenantza honetako 11. artikuluko 2. paragrafoko hirugarren ahapaldian zehaztutakoa jarraituko da.

5.- Artikulu honetako 1. paragrafoko e) eta f) idatz-zatietan xedatutako salbuespenek erregu izaera izango dute eta, hala dagokionean, alde batek eskatuta emango dira.

#### **IV. SUBJEKTU PASIBOA**

8. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira bai pertsona fisikoak eta juridikoak, bai Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikulua aipatzen dituen erakundeak, udalerrian zerga gaia eratzten duten jardueretako edozein egiten badute.

#### **V.ZERGA KUOTA**

9. artikulua

Zergaren tarifetan finkatutako udal kuotak, dagokien Foru Arauaren bidez onartutakoak, haztapeneko koefiziente bat aplikatuta handituko dira; subjektu pasiboaren eragiketen bolumenaren arabera zehaztuko da koefiziente hori, taula honen arabera:

Eragiketen bolumena, eurotan	Koefizientea
2.000.000,00tik 6.000.000,00ra	1,20
6.000.000,01etik 10.000.000,00ra	1,22
10.000.000,01etik 50.000.000,00ra	1,24
50.000.000,01etik 100.000.000,00ra	1,27
100.000.000,00tik gora	1,30
Eragiketa bolumenik gabe	1,25

Atal honetan aipatutako koefizientea aplikatzeko,

d), g) y h) del apartado anterior no estarán obligados a presentar declaración de alta en la matrícula del Impuesto.

3. El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos establecerá en qué supuestos la aplicación de la exención prevista en la letra c) del apartado 1 anterior exigirá la presentación de una comunicación dirigida a la Diputación Foral de Álava en la que se haga constar que se cumplen los requisitos establecidos en dicha letra para la aplicación de la exención.

A estos efectos, el Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos establecerá el contenido, el plazo y la forma de presentación de dicha comunicación, así como los supuestos en que habrá de presentarse por vía telemática.

4. En cuanto a las variaciones que puedan afectar a la exención prevista en la letra c) del apartado 1 anterior, se estará a lo previsto el párrafo tercero del apartado 2 del artículo 11 de esta Ordenanza fiscal.

5.- Las exenciones previstas en las letras e) y f) del apartado 1 de este artículo tendrán carácter rogado y se concederán, cuando proceda, a instancia de parte.

#### **IV. SUJETO PASIVO**

Artículo 8.

Son sujetos pasivos de este impuesto las personas físicas o jurídicas y las Entidades a que se refiere el artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria de Alava siempre que realicen en el término municipal cualquiera de las actividades que originen el hecho imponible.

#### **V.CUOTA TRIBUTARIA**

Artículo 9.

Las cuotas tributarias fijadas en las Tarifas del Impuesto aprobadas por la Norma Foral correspondiente, se incrementarán mediante la aplicación de un coeficiente de ponderación determinado en función del volumen de operaciones, de acuerdo con el cuadro siguiente:

Volumen de operaciones (euros)	Coeficiente
Desde 2.000.000,00 hasta 6.000.000,00	1,20
Desde 6.000.000,01 hasta 10.000.000,00	1,22
Desde 10.000.000,01 hasta 50.000.000,00	1,24
Desde 50.000.000,01 hasta 100.000.000,00	1,27
Más de 100.000.000,00	1,30
Sin volumen de operaciones	1,25

A efectos de aplicación del coeficiente a que se



subjektu pasiboak egindako jarduera ekonomiko guztiek osatuko dute haren eragiketa-bolumena, eta ordenantza honen 7.1 c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera finkatuko da.

#### 10.artikulua

Udalak, Zergaren Tarifek finkatutako gutxienezko kuotetan, aurreko artikuluan araututako koefizienteen aplikazioaren bidez aldatutakoetan, 1,5eko koefiziente orokorra aplikatuko dio udalerrri honetan gauzatutako jarduera guztiei.

### V. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

#### 11. artikulua.

1.- Zergaldia urte naturalarekin bat dator, alta-aitorpenak direnean izan ezik; horrelakoetan, zergaldiaren jarduera hasi denetik urtea bukatu artekoa izango da. Horrek ez du eragotziko artikulua honetako 3. paragrafoan xedatutakoa ezartzea.

2.- Zerga sortuko da zergaldiaren lehen egunean eta kuotak murriztezinak izango dira, salbu eta alta-aitorpenen kasuetan, jarduera hasten deneko eguna urtearekin bat ez datorrenean; horrelakoetan, jarduera hasten den egunetik abenduaren 31 bitarteko egun-kopuruaren arabera proportzionalki kalkulatu da.

3.- Baja-aitorpenen kasuetan, zergaldia urtarilaren batetik baja-aitorpena aurkezten den egunera artekoa izango da. Horrelakoetan, zerga zergaldiaren lehen egunean sortuko da eta kuota urtarilaren batetik baja-aitorpenaren egunera arte dauden hileen arabera proportzionalki kalkulatu da.

Aurreko lerroaldean aipatutako hilabeteen kopurua kalkulatzeko, baja-aitorpena aurkezten den hila osoa balitz bezala zenbatuko da.

Paragrafo honetan xedatutakoa ez da aplikatuko jarduera hasten den egunetik baja-aitorpena egiten den eguna arte 12 hilabete igaro ez badira. Horrelakoetan, baja-ematearen eguna jarduera hasiz geroztik baja-aitorpena aurkezten den urteko abenduaren 31ra pasako da.

4.- Ikuskizunei dagokienez, kuotak saio bakanen arabera ezarritakoak direnean, sortzapena saio bakoitzeko sortuko da, eta egoki diren aitorpenak aurkeztu beharko dira arauak ezarritakoari jarraiki.

refiere este apartado, el volumen de operaciones del sujeto pasivo será el correspondiente al conjunto de actividades económicas ejercidas por el mismo y se determinará de acuerdo con lo previsto en el artículo 7.1 c) de esta ordenanza.

#### Artículo 10.

El Ayuntamiento sobre las cuotas mínimas fijadas en las Tarifas del Impuesto, modificadas por la aplicación del coeficiente regulado en el artículo anterior, aplicará un coeficiente único del 1,5 para todas las actividades ejercidas en este municipio.

### V. PERIODO IMPOSITIVO Y DEVENGO

#### Artículo 11.

1.- El período impositivo coincide con el año natural, excepto cuando se trate de declaraciones de alta, en cuyo caso abarcará desde la fecha de comienzo de la actividad hasta el final del año natural, sin perjuicio de lo dispuesto en el número 3 de este artículo.

2.- El impuesto se devenga el primer día del período impositivo y las cuotas serán irreducibles, salvo cuando, en los casos de declaración de alta, el día de comienzo de la actividad no coincida con el año natural, en cuyo supuesto las cuotas se calcularán proporcionalmente al número de días existentes entre la fecha de comienzo de la actividad y el 31 de diciembre.

3.- En el caso de declaraciones de baja, el período impositivo se extenderá desde el uno de enero hasta la fecha en que se presente la declaración de baja. En este supuesto el impuesto se devenga el primer día del período impositivo y la cuota se calculará de forma proporcional al número de meses existentes entre el uno de enero y la fecha de presentación de la declaración de baja.

A efectos del cómputo del número de meses, a que se refiere el párrafo anterior, se contará como entero el mes en que se produzca la presentación de la declaración de baja.

Lo dispuesto en este número no será de aplicación si entre la fecha de inicio de la actividad y la de declaración de baja no han transcurrido 12 meses. En este caso se trasladará la fecha de baja al día 31 de diciembre del año en que se presente la declaración de baja.

4.- Tratándose de espectáculos, cuando las cuotas estén establecidas por actuaciones aisladas, el devengo se produce por la realización de cada una de ellas, debiéndose presentar las correspondientes declaraciones en la forma que se establezca reglamentariamente.



## VI. KUDEAKETA

### 12. artikulua.

1.- Errolda bidez kudeatuko da zerga. Aipatutako errolda urtero egingo da eta bertan jarduera ekonomikoak, subjektu pasiboak, zerga-zorrak, eta, hala badagokio, foru errekgargua barnean hartuko dituzten erroldak sartuko dira. Errolda udaletxean egingo da jendaurrean.

2.- Subjektu pasiboek dagozkien alta-aitorpen guztiak aurkeztu behar dituzte, eta foru arau honetako 11.1 artikuluari jarraikiz, erroldan sartzeko beharrezko diren elementu guztiak adierazi beharko ditu, arauz ezartzen den epean. Jarraian, eskumena duen Administrazioak dagokion likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, eta horrek, dagokion sarrera egin beharko du.

Halaber, subjektu pasiboek zergapetutako jarduerak gauzatzean sortuko diren eta zerga honen ondorioetarako garrantzia izango duten aldaketa fisikoak, ekonomikoak eta juridikoak jakinarazi beharko dituzte arau bidez ezarriko diren epe eta terminoetan. Horri dagokionez, jakinarazpen horietan nahitaez adierazi beharko da jarduerak gauzatzen diren higiezinaren katastroko erreferentzia.

Zehazki, Foru Arau honetako 7. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatian zehaztutako salbuespena aplikatu ezin zaien zergadunek, eragiketa bolumena adierazi beharko diote Arabako Foru Aldundiari. Era berean, subjektu pasiboek eragiketa bolumenean izandako aldakuntzen berri eman beharko dute, baldin aldakuntza horrek berarekin badakar zerga ordenantza honetako 7. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatian zehaztutako salbuespena aplikatzearen edo ez aplikatzearen aldaketa, bai eta ordenantza honetako 9.artikuluaren zehaztutako haztapan koefizientea aplikatzearen ondorioetarako kontuan izan beharreko zatiko aldaketa.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarriko ditu komunikazio horiek aurkeztu behar diren kasuak, haien edukia, epea eta aurkezteko modua, bai eta bide telematikoz noiz aurkeztu behar diren ere.

3.- Erroldetako datuak sartu, kendu edo aldatzea, zerga-ikuskatze jarduketan edo alta-emate eta komunikazioen formalizazioaren ondorio direnak, administrazio-egintzatzat joko dira eta erroldaren

## VI. GESTION

### Artículo 12.

1.- El Impuesto se gestiona a partir de la Matrícula del mismo. Dicha matrícula se formará anualmente y estará constituida por censos comprensivos de las actividades económicas, sujetos pasivos, deudas tributarias, y, en su caso, del Recargo Foral. La Matrícula estará a disposición del público en el Ayuntamiento.

2.- Los sujetos pasivos estarán obligados a presentar las correspondientes declaraciones de alta manifestando todos los elementos necesarios para su inclusión en la matrícula en los términos del Artículo 12.1 de esta Ordenanza fiscal y dentro del plazo que reglamentariamente se establezca. A continuación se practicará por la Administración competente la liquidación correspondiente, la cual se notificará al sujeto pasivo, quien deberá efectuar el ingreso que proceda.

Asimismo los sujetos pasivos estarán obligados a comunicar las variaciones de orden físico, económico o jurídico que se produzcan en el ejercicio de las actividades gravadas, y que tengan trascendencia, a efectos de este impuesto, y las formalizarán en los plazos y términos reglamentariamente determinados. A este respecto, en dichas comunicaciones se hará constar necesariamente la referencia catastral de los inmuebles en que se ejerzan las referidas actividades.

En particular, los sujetos pasivos a los que no resulte de aplicación la exención prevista en la letra c) del apartado 1 del artículo 7 de la presente Ordenanza fiscal, deberán comunicar a la Diputación Foral de Álava el volumen de operaciones. Asimismo, los sujetos pasivos deberán comunicar las variaciones que se produzcan en el volumen de operaciones cuando tal variación suponga la modificación de la aplicación o no de la exención prevista en la letra c) del apartado 1 del artículo 7 de esta Ordenanza fiscal o una modificación en el tramo a considerar a efectos de la aplicación del coeficiente de ponderación previsto en el artículo 9 de esta Ordenanza fiscal.

El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos establecerá los supuestos en que deberán presentarse estas comunicaciones, su contenido y su plazo y forma de presentación, así como los supuestos en que habrán de presentarse por vía telemática.

3.- La inclusión, exclusión o alteración de los datos contenidos en los censos, resultantes de las actuaciones de inspección tributaria o de la formalización de altas y comunicaciones, se



aldaketa ekarriko dute. Matrikulan erroldetako datuekin lotuta dagoen edozein aldaketa egiteko, aldeztatik erroldako datuak aldatu beharko dira ezinbestez.

4.- Zerga hau autolikidazioaren bidez egiteko eskatu ahal izango da, arauen bidez ezarriko diren terminoetan.

#### 13. artikulua.

1.- Udal honek ditu kudeaketa, likidazio, ikuskatze eta bilketa ahalmenak, bai araututako epean, bai premiamendu bidean.

2.- Udalaren aginpidea izango da, halaber, errolda jendaurrean jartzea, errekurtsioak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak ezartzea, eta, azkenik, zerga honekin lotutakoetan zergadunari laguntza eta informazioa ematea.

3.- Udal hau Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan arituko da, errolda eratzeko eta mantentzeko lanetan, jarduera ekonomikoen sailkatzean, kuotak zehaztean eta gainontzeko eskumenetan.

4.- Salbuespenak eta hobariak emateko edo ez emateko, gainera, aurretik foru aldundiak txosten teknikoa egin behar du, eta ondoren, emandako ebazpenaren berri ere eman beharko zaio.

#### 14. artikulua

Jardueren kalifikazioen eta kuoten zehaztapenaren aurka aurkeztutako errekurtsio eta erreklamazioak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 229. artikulutik 246.era bitartekoetan xedatutakoari jarraiki arautuko dira, eta Arabako Foru Aldundia izango da berraztertze errekurtsioa ebazteko organo eskuduna. Erreklamazio horiek aurkezteak ez du egintzen betearazi beharra eragotziko.

#### 15. artikulua.

1.- Udal bakoitzari dagozkion erroldak foru aldundiak egingo ditu eta ondoren haiei bidaliko dizkie.

2.- Foru Aldundiak landutako errolda jasotakoan, jendaurrean jarriko da hamabost egunez, zergadunek azter dezaten eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ditzaten, halakorik nahi izanez gero.

considerarán acto administrativo, y conllevarán la modificación del censo. Cualquier modificación de la Matrícula que se refiera a datos obrantes en los censos requerirá, inexcusablemente, la previa alteración de estos últimos en el mismo sentido.

4.- Este impuesto podrá exigirse en régimen de autoliquidación en los términos que reglamentariamente se establezcan.

#### Artículo 13.

1.- Las facultades de gestión, liquidación, inspección y recaudación, tanto en período voluntario como por la vía de apremio, corresponden a este Ayuntamiento.

2.- En materia de su competencia, le corresponde la exposición al público de la matrícula, resolución de recursos y reclamaciones, cobranza del impuesto, aplicación de exenciones y bonificaciones y actuaciones para la asistencia e información al contribuyente referidas a las materias de este impuesto.

3.- Este Ayuntamiento colaborará con la Diputación Foral de Álava en las tareas de formación y mantenimiento de la Matrícula, la calificación de las actividades económicas, el señalamiento de las cuotas y demás competencias.

4.- La concesión y denegación de exenciones requerirá, en todo caso, informe técnico previo de la Diputación Foral, con posterior traslado a ésta de la resolución que se adopte.

#### Artículo 14.

Los recursos y reclamaciones que se interpongan contra los actos de calificación de actividades y señalamiento de cuotas se regirán por lo dispuesto en los artículos 229 a 246 de la Norma Foral General Tributaria de Alava, siendo el órgano competente para resolver el recurso de reposición la Diputación Foral de Alava. La interposición de estas reclamaciones no suspenderá la ejecución de los actos.

#### Artículo 15.

1.- Las Matrículas correspondientes a cada Ayuntamiento se confeccionarán por la Diputación Foral que las remitirá a éstos.

2.- Una recibida la Matrícula confeccionada por la Diputación Foral, se expondrá al público por un término de quince días para que los contribuyentes afectados puedan examinarlas y formular, en su caso, las reclamaciones que consideren oportunas.





**16. artikulua.**

Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio emaitzaren egiaztagiria, hark onar dezan.

Onartu eta gero, foru aldundiak dagozkion ordainagiriak egingo ditu, eta udalari bidaliko dizkio, azken horrek diru-bilketari ekin diezaion.

**17. artikulua**

Zerga hau ezartzen zaien jardueren alta eta baja aitortpenen kasuan, udalak zerga alde aurretik autoliquidazioaren bidez ordaintzeko eska dezake.

**XEDAPEN IRAGANKORRA**

Foru Arau hau indarrean sartzean, uztailearen 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuaz onartutako tarifen bigarren atalari egindako 1. ohar komunean lehen araututa zegoen jarduera hasteagatik kuotako hobaria aplikatzen ari dira zenbait subjektu pasibo. Subjektu pasibo horiek, foru arau honetan xedatuari jarraituz zerga ordaintzetik salbuetsita ez badaude, hobari hori aplikatzen jarraituko dute, ohar komun horretan araututako baldintzetan, harik eta hobaria aplikatzeko dagokien aldia bukatzen zaien arte.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Idargabetuta geratzen dira hemen finkatzen direnen kontra doazen xedapen guztiak, eta bereziki ALHAOn 2008ko abenduaren 24an argitaratutako Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren Ordenantza Fiskal Erregulatzaileria.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

**Artículo 16.**

Concluido el plazo de exposición al público y resueltas las reclamaciones, se remitirá a la Diputación Foral de Alava la certificación del resultado de la misma para su aprobación.

Una vez aprobado, se confeccionará por la Diputación los correspondientes recibos que se remitirán al Ayuntamiento para su recaudación.

**Artículo 17.**

En el supuesto de declaraciones de alta y baja por ejercicio de actividades gravadas por este impuesto, el Ayuntamiento podrá exigir el pago previo del Tributo mediante autoliquidación

**DISPOSICIÓN TRANSITORIA**

En relación con los sujetos pasivos del Impuesto sobre Actividades Económicas respecto de los cuales, a la entrada en vigor de esta Norma Foral, no estando exentos de pago del impuesto con arreglo a lo dispuesto en la misma, se estuvieran aplicando las bonificaciones en la cuota por inicio de actividad anteriormente regulada en la nota común 1ª a la sección segunda de las Tarifas aprobadas por el Decreto Foral Normativo 573/1991, de 23 de julio, continuarán aplicándose dicha bonificación, en los términos previstos en la citada nota común, hasta la finalización del correspondiente periodo de aplicación de la bonificación.

**DISPOSICIÓN DEROGATORIA**

Quedan derogadas todas las disposiciones que se opongan a lo establecido en la misma y, en particular, la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Actividades Económicas publicada en el BOTHA de 24 de diciembre de 2008.

**DISPOSICION FINAL**

La presente entrará en vigor al día 1 de enero de 2013, permaneciendo en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación expresas.

<b>ALDAKETEN HISTORIALA</b>	<b>HISTORIAL DE MODIFICACIONES</b>
OHARRA: Testu hau hasierako testuaren eta ondoren aipatzen diren aldaketen bertsio bateratua da. Bere helburua soilik informatzailea eta kontsultakoa da. Legezko baliodun testu bakarrak publikazio ofizialetan jasotakoak dira.	NOTA: El presente texto es una versión integrada de primer texto y de las modificaciones que se indican. Su publicación tiene finalidad exclusivamente informativa y de consulta. Los únicos textos considerados legalmente válidos son los que aparecen en las publicaciones oficiales

Udal Plenoan onartutako eguna / Fecha de aprobación en Pleno Municipal	ALHAOn argitaratutako eguna / Fecha publicación en BOTHA	Indarrean sartu den eguna / Fecha de entrada en vigor.	Aldatutako artikulua / artículos modificados.
--	--	--	---



2012/11/08	2012/12/28	2013/01/01	Lehen onarpena. / Primera aprobación.
2017/05/25	2017/08/16	2018/01/01	7. artikuluko 1 atalaren % <del>at</del> azpiatala aldatzea eta bigarren xedapen iragankorra ezartzea..
2017/10/26	2017/12/27	2018/01/01	Bigarren xedapen iragankorra kentzea.